

§2.

**Reglamento del Registro Civil,
aprobado por el Decreto de 14
de noviembre de 1958**

§2.

**Erregistro Zibilaren Erregelamendua,
1958ko azaroaren 14ko Dekretuak
onetsi duena**

Reglamento del Registro Civil

**Decreto de 14 de noviembre 1958,
BOE del 11 de diciembre**
(Actualización en el BOE
de 19 de septiembre de 1986)

La segunda de las disposiciones adicionales de la Ley del Registro Civil de 8 junio 1957 ordena que antes de comenzar a regir habrá de aprobarse el Reglamento para su ejecución.

En cumplimiento de tal mandato legal, se dicta el presente Reglamento, una vez implantada la sustancial reforma del Código Civil por la Ley de 24 abril del año en curso, que, ineludiblemente había de tener en cuenta, puesto que el primer Cuerpo Legal constituye las *sedes materiae* de la regulación sustantiva de la persona y de su estado civil, cuya constancia oficial es misión del Registro; por lo que cualquier alteración de la norma civil sustantiva puede tener reflejo en la propia de aquel órgano, como lo han causado las recientes modificaciones relativas al matrimonio y a la adopción.

Diversas han sido las fuentes y elementos que han inspirado el nuevo Reglamento. En primer lugar, se han tenido en cuenta cuantos preceptos de la primitiva Ley del Registro Civil coordinaban con el nuevo sistema, no recogidos en la Ley, próxima a entrar en vigor, por su carácter casuístico o interpretativo.

Erregistro Zibilaren Erregelamendua

**1958ko azaroaren 14ko Dekretua,
abenduaren 11ko EAO**
(1986ko irailaren 19ko
EAOn eguneratuta)

Erregistro Zibilaren 1957ko ekainaren 8ko Legeko bigarren xedapen gehigarriaren arabera, legea indarrean jarri aurretik erregelamendua onetsi behar da, lege hori betearazteko.

Lege-agindu hori betetzeko, erregelamendu hau eman da, behin Kode Zibilaren funtsezko eraldaketa ezarrita; eraldaketa hori aribidean dagoen urteko apirilaren 24ko Legearen bitartez egin da, eta, dudarik gabe, kontuan hartzekoa da, lehenengo lege-testuak *sedes materiae* izenekoak eratzen baititu pertsonari eta beraren egoera zibilari buruzko arauketa substantiboaren inguruan. Horiek modu ofizialean jasotzea Erregistroaren eginkizuna da; hori dela eta, arau zibil substantiboaren aldarazpenetik edozeinek organo horren arauak aldaraz ditzake, ezkontzaren eta adopzioaren inguruan oraintsu izandako aldarazpenek egin duten bezala.

Era askotakoak izan dira erregelamendu berriaren oinarri gisa erabilitako iturri eta osagaiak. Hasteko, antzina-ko Erregistro Zibilaren Legetik sistema berriarekin bat datozen manu guztiak aintzat hartu dira; manuok ez zeuden jasota indarrean jartzear dagoen legean, izaera kasuistiko eta interpretaziozkoa zutelako.

También se ha tenido a la vista el Reglamento para la ejecución de la Ley anterior que, elaborado sin conocimiento de lo que fuera el Registro Civil como institución viva, resultaba manifiestamente insuficiente.

Y, por último, las disposiciones administrativas de diferente rango y época, y las resoluciones de la Dirección General de los Registros y del Notariado, han sido medios excepcionales para saber lo que ha sido un Registro Civil casi secular y para resolver la prolija problemática registral a través de las más diversas situaciones.

En la actual tarea legislativa se ha intentado dar certeza, simplicidad y unidad orgánica a multitud de normas anteriores, casuísticas, complementarias o interpretativas, a veces poco concordantes entre sí o manifiestamente insuficientes para resolver las necesidades planteadas en el antiguo sistema.

La nueva Ley, además, ha organizado el Registro Civil en toda su complejidad y ha dado más tecnicismo a la institución, a la vez que la ha hecho más práctica, simple y flexible y, también, más completa, veraz y justa, lo que ha obligado a introducir en las antiguas normas reglamentarias congruentes alteraciones y a establecer otras para las materias en que la Ley partía de nuevas bases.

Los primeros artículos del Reglamento comprenden las disposiciones generales que, si por una parte han de

Bestalde, aurreko legea betearazteko erregelamendua ere gogoan izan da. Erregelamendu horrek ez zuen kontuan hartu Erregistro Zibila erakunde bizia zela, eta, horregatik, erabat askieza zen.

Amaitzeko, lerrun eta garai ezberdinetako administrazio-xedapenak, eta Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenak salbuespeneko baliabideak izan dira, Erregistro Zibilia sekularra zer izan den jakiteko, bai eta Erregistroaren inguruko arazo franko egoera desberdinen bidez konpontzeko ere.

Egungo legegintza-zereginen, ahaleginak egin dira aurreko araei ziurtasuna, sotiltasuna eta batasun organikoa emateko, arau horiek kasuistikoak, osagarriak edo interpretazio hutsekoak baitziren. Arauok, batzuetan, euren artean ez zetozen bat; eta, beste batzuetan, ez ziren behar besteak, antzinako sisteman agertutako beharrianak konpontzeko.

Lege berriak, gainera, Erregistroa konplexutasun osoz antolatu du, eta erakundeari teknizismo handiagoa eman dio; aldi berean, Erregistroa praktikoa, sotilagoa eta malguagoa egin du, eta, berebat, osoagoa, egiazkoagoa eta zuzenagoa. Horren ondorioz, nahitaezkoa izan da antzinako erregelamenduarauetan horrekin bat datozen aldarazpenak barneratzea, eta, legeak oinarri berriak zituen arloetarako, beste arau batzuk ere ezartzea.

Erregelamenduaren lehenengo artikuluetara xedapen orokorrak biltzen dira; alde batetik, xedapenok interes

dar al Registro la agilidad que exige el interés público y el de los particulares, de otra, afrontan ciertas cuestiones, cuya solución ha de ser la misma para todo tipo de actuación, bien se trate de asientos, expedientes o certificaciones. Entre dichas disposiciones destaca la que tiende a facilitar el servicio a los particulares, que podrán acceder a cualquier Registro a través de la oficina de su domicilio.

Especial mención merece la disposición relativa a la capacidad, en orden al Registro, que se decide conforme a criterios impuestos por las necesidades prácticas, avalados por la solución que da a problema análogo la Ley de Jurisdicción Contencioso-Administrativa y, más recientemente, la Ley sobre Procedimiento Administrativo.

Las normas de jurisdicción voluntaria son de aplicación supletoria, en las actuaciones del Registro para aquellas cuestiones que el propósito de huir de un casuismo exagerado o la imprevisión hayan dejado sin solución reglamentaria. Esta aplicación está en armonía con la especial naturaleza de la actividad pública registral tan distinta de la típica administrativa del Estado, regulada por el Derecho administrativo y sujeta a la jurisdicción contencioso-administrativa. La actividad pública registral, en íntimo contacto con el Derecho común, tiene por fin crear títulos de legitimación sobre el estado civil, constituir, a veces, con otros requisi-

orokorrerako eta partikularren intereserako nahitaezkoa den arintasuna eman behar diote Erregistroari, eta, bestetik, arazo jakin batzuei aurre egin behar diete, eta arazoon konponbidea bera izan behar da mota guztietako jardueretan, idazkunak izan, espedienteak izan zein ziurtagiriak izan. Aipatu xedapenen artean, zerbitzua partikularrei errazteko balio duena azpimarratu behar da; izan ere, partikularrek edozein erregistrotara jo ahal izango dute euren egoitzari dagokion bulegotik.

Bestalde, Erregistroari lotuta, bereziki aipatu behar da gaitasunarekin zerikusia duen xedapena. Xedapen hori erabakitzeke, beharizan praktikoez ezarritako irizpideak aplikatuko dira, eta, gainera, aintzakotzat hartu da Administrazio Auzibideetarako Jurisdikzioaren Legeak, eta, arestian, Administrazio Prozedurari buruzko Legeak, antzeko arazoari emandako konponbidea.

Borondatezko jurisdikzioaren arauak ordezkotzat aplikatuko dira Erregistroaren jardunean sortutako arazoetan, baldin eta arazo horietarako erregelamenduan konponbiderik ez badago, gehiegizko kasuismotik ihes egiteko nahiaren ondorioz edo arazook aurreikusteko ezintasunaren ondorioz. Aplikazio hori Erregistroko jarduera publikoaren izaera bereziarekin bat dator, eta jarduera hori eta estatuak duen ohiko administrazio-jarduera oso ezberdinak dira; azken hori administrazio-zuzenbideak arautu du eta administrazio auzibideetarako jurisdikzioari dagokio. Erregistroko jarduera publikoaren helburuak dira, zuzenbide erkidearekin

tos, el propio estado y, siempre, proporcionar a los particulares una información sobre la condición civil de las personas en que por sus garantías jurídicas puedan confiar.

Estamos, pues, ante cuestiones civiles típicas de la tradicionalmente llamada Administración de Justicia, y por ello, desde su origen, encomendadas a los órganos de la jurisdicción ordinaria. Si en determinado escalón interviene en los expedientes del Registro Civil un órgano formalmente administrativo, la Dirección General de los Registros y del Notariado, sus funciones, en este orden, como en otros determinados de su competencia, no se diferencian esencialmente de los que corresponden, en los otros escalones a los órganos judiciales y sus resoluciones, contra las que no cabe recurso alguno, dejan siempre abierta la vía judicial ordinaria.

La Ley establece que el Registro es público para quien tenga interés en conocer los asientos. Según la legislación anterior, se debían facilitar certificaciones del Registro a cualquier persona que las solicitara. Aun cuando no se ha producido un cambio radical de criterio, ahora se puntualiza el principio, con objeto de evitar abusos y exigir, en los casos señalados en el Reglamento, una cualificación especial del interés. Se han reglamentado concretamente las restricciones de publicidad impuestas por el art. 51 de la Ley y, al efecto, se

duen lotura estua kontuan hartuta, egoera zibilari buruzko legitimazio-tituluak sortzea; zenbait kasutan, beste betekizun batzuekin, egoera bera eratzea; eta, beti, pertsonen izate zibilari buruz partikularrei informazioa ematea. Informazio horrek berme juridikoak dituen zergo, partikularrek konfiantza izan dezakete.

Hortaz, Justizia Administrazio izendatu izan den horretan ohiko diren arazo zibilen aurrean gaude, eta, ondorenez, hasiera-hasieratik, jurisdikzio arrunteko organoen ardurapean egon dira arazo horiek. Maila jakin batean, Erregistro Zibileko espedienteetan esku hartzen badu formaren ikuspuntutik Administrazioa den organo batek, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunak, hurrenkera horretan eta haren eskumenekoak diren beste batzuetan, oinarrian ez dira desberdintzen beste mailetan organo judizialei eta euren ebazpenei dagozkien espedienteetatik; ebazpenon aurka ezin da errekurtsorik jarri, baina bide judicial arrunta beti irekita geratzen da.

Legeak ezarri du Erregistroa publikoa dela, idazkunen berri izan nahi duten interesdunentzat. Aurreko legeriaren arabera, Erregistroko ziurtagiriak eman behar zitzaizkion horiek eskatzen zituena pertsona orori. Irizpide horren inguruan erabateko aldaketarik gertatu ez bada ere, orain, hasiera azpimarratzen da, bai abusuak saihesteko, bai eta, erregelamenduak zehaztutako kasuetan, interesaren kualifikazio berezia eskatzeko ere. Erregelamenduaren bidez jaso dira, batez ere, legearen 51. artikuluan publikitateari ezarritako murrizketak, eta, on-

regula la expedición de certificaciones en extracto de nacimiento, de modo tal que, sin perjuicio de la identificación del nacido, resulte efectivo el principio que, «fuera de la familia, no podrá hacerse distinción de españoles por la clase de filiación». El Libro de Familia se completa con el Libro de Filiación, que ahora se crea con igual finalidad que aquél, dentro y fuera del ámbito laboral, respecto de los hijos que no nacen de familia legítimamente constituida.

Conforme a las directrices que marca la Ley, se desarrolla la organización y funcionamiento del Registro, se da simplicidad al mecanismo de los asientos y se tiende a alcanzar el máximo de eficacia mediante la acción de oficio y las sanciones a los particulares que olviden sus obligaciones.

En los Registros, llevados por Jueces de Paz, como delegados del Encargado, se ha intensificado, de acuerdo con los criterios legales, la intervención de éste, que es obligada en las cuestiones que salen de la fácil solución que proporcionarán los formularios. Se han sentado también las bases para que el Registro Civil en las grandes poblaciones se organice de acuerdo con su densidad demográfica y las necesidades del servicio público.

El sistema de libros duplicados, uno de cuyos ejemplares había de conservarse en la Secretaría del Juzgado del partido, no tuvo realidad en la práctica. Sin duda alguna, con ello, se hubiera

dore horretarako, jaiotzari buruzko ziurtagiri laburtuak egitea arautu da. Horrela, jaiorearen identifikazioari kalterik egin gabe, ondoko printzipioa eragingarria izan daiteke: «familiarrik kanpo ezin izango da espainiarren artean bereizketarik egin, seme-alabatasun motarengatik». Era berean, Familia Liburua Seme-alabatasunari buruzko Liburuarekin osatzen da; azken hori, gaur egun, Familia Liburuak duen helburu berarekin sortu da, lan-eremuaren barruan zein horretatik kanpo, modu legitimoan eraturako familian jaiore ez diren seme-alabei dago kienez.

Legeak zehaztu dituen gida-lerroen arabera, Erregistroaren antolaketa eta jardunbidea garatu da, idazkunen inguruko mekanismoari sotiltasuna emana zaio, eta gehieneko eragingarritasuna lortu nahi da, ofiziosko akzioaren bidez eta euren betebeharrak ahanzten dituzten partikularrei zehapenak ezarrita.

Horrez gain, bake epaileek, arduradunaren eskuorde gisa, erregistroak zuzentzen dituztenerako, bake epaile horien esku-hartzea indartu da lege-irizpideen arabera; izan ere, esku-hartze hori nahitaezkoa da konponbide errazeko arazoetan, konponbide hori formularioetatik ateratzen bada. Era berean, zenbait oinarri ezarri dira, herri handietan Erregistroa biztanleria-dentsitatearen arabera eta zerbitzu publikoaren beharrezanaren arabera antolatzeko.

Liburu bikoiztuen sistemaren barruan, liburuon ale bat barrutiko epaitegiaren idazkaritzan gorde behar zen, baina sistema hori praktikan ez da gauzatu. Modu horretan, zalantzarik gabe,

garantizado la conservación de los asientos a costa de una complicación formal y burocrática; en el Reglamento actual tiene la misma finalidad la creación de un archivo provincial, en el que se integrarán los legajos de los Registros; de esta forma, en caso de destrucción, se asegura y facilita notablemente la reconstrucción de los asientos desaparecidos.

El Libro Diario dará garantía de la certeza de la fecha de los asientos marginales, en los que, por definición, no es posible contar siempre con la que se deriva de la exigencia de que se extiendan por un orden sucesivo o sin dejar huecos o claros intermedios.

El Libro de Personal y Oficina proporcionará la historia de las modificaciones de cada demarcación y se facilitará así la busca de asientos del Registro, cuya competencia está determinada por el lugar en que ocurrió un hecho. El sistema de ficheros y el de notas marginales de coordinación dará agilidad a la función informativa del Registro, que no sólo debe servir para que los que ya conocen los datos obtengan las certificaciones que necesiten, sino también para que los interesados que no los conozcan puedan llegar a determinarlos por el propio Registro.

Se regulan las anotaciones con las cautelas convenientes para evitar su confusión con las inscripciones y para que se basen en títulos suficientes a su finalidad informativa. Supletoriamente se les aplica el régimen de las inscrip-

idazkunen iraunarazpena berma zitekeen, forma edo burokraziaren konplexutasuna gehituz. Egungo erreklamenduan, Probintziako Artxiboa sortzeak helburu bera du, artxibo horrek bere barnean hartuko baititu erregistroetako paper-sortak; taxu berean, suntsipen-kasuan, desagertutako idazkunak berregitea nabariro ziurtatu eta errazten da.

Liburu Egunkariak bermatuko du orri-bazterreko idazkunetan jasotako data egiazkoa izatea; idazkunotan, euren izaera dela eta, ezin da beti datatzat hartu idazkunak elkarren segidan edo hutsunerik nahiz tarte argirik utzi gabe egitearen ondoriozkoa.

Langileria eta Bulego Liburuak mugape bakoitzeko aldarazpenen historia jasoko du, eta, horrela, Erregistroko idazkunak bilatzea errazagoa izango da, erregistro horren eskumena zehazten baitu egitatea zein tokitan gertatu eta toki horrek. Fitxategien eta orri-bazterreko koordinazio-oharren sistemak arintasuna emango dio Erregistroak informazioa emateko duen eginkizunari. Arean ere, Erregistroak ez du balio jadanik datuen berri dutenek beharrezko ziurtagiriak eskura ditzaten bakarrik. Erregistroak balio du, orobat, datuon berri ez duten interesdunek Erregistroaren bidez horiek zehatz ditzaten.

Idatzoharrak, bestalde, arreta egokiekin arautu dira, inskripzioekin nahas ez daitezen, eta, informazio-helburua dutenez gero, behar besteko tituluetan oinarri daitezen. Horretara, idatzoharrei inskripzioen araubidea

ciones, las cuales siempre tendrán un valor prevalente.

Respecto de las inscripciones marginales en los folios de nacimiento, merece explicación el criterio adoptado en cuanto a los hechos que afectan a la patria potestad. La Ley prescribe la inscripción marginal de tales hechos, salvo el de fallecimiento de los padres, disposición que se cumple, pero evitando que haya inscripciones repetidas sobre un mismo hecho en distintas secciones del Registro. Los hechos, pues, que son inscribibles separadamente y que producen, como consecuencia, una alteración de la patria potestad, sólo darán lugar a la nota marginal de referencia. De acuerdo con el criterio legal, la muerte de los padres no constará marginalmente en el folio de nacimiento.

La filiación natural materna no sólo llegará al Registro en virtud del acto de reconocimiento, sino que, conforme a las disposiciones de la nueva Ley, se considerará acreditada por el parte técnico del alumbramiento y por la declaración de quien tenga conocimiento cierto del hecho, si bien es el padre la persona a quien la ley cita en primer lugar entre los obligados a formular la declaración.

El Reglamento considera que, en consecuencia de lo establecido en la nueva Ley, el art. 132 CC ha sido modificado de tal modo, que ya no se tachará de oficio toda revelación que sobre la madre natural se haga en los asientos en base a la declaración del

ezarriko zaie ordezeko moduan, baina inskripzioek lehentasuneko balioa izango dute beti.

Jaiotza-folioen orri-bazterretan egindako inskripzioen harira, azaldu beharrekoa da guraso-ahalaren gain eragina duten egitateen kasuan hartutako irizpidea. Legeak agintzen du egitateon inskripzioa orri-bazterrean egitea, gurasoen heriotzari buruzko egitatea izan ezik, eta xedapen hori bete egiten da; baina saihestu beharra dago Erregistroko atal ezberdinetan egitate berari buruz inskripzioak errepikatzea. Hortaz, bananduta inskriba daitezkeen egitateek, eta, ondorioz, guraso-ahalaren aldaketa eragiten dutenek, orri-bazterreko erreferentzia-oharra soilik sortuko dute. Legearen irizpideari helduta, gurasoen heriotza ez da jasoko jaiotza-folioaren orri-bazterrean.

Naturaren araberako amarengandiko seme-alabatasuna ez da Erregistrora iritsiko aitorpen-egintzaren bidez bakarrik; aitzitik, lege berriaren xedapenen arabera, seme-alabatasun hori egiaztatuzat joko da erditzeari buruzko parte teknikoaren bidez eta egitatearen berri ziurra duenak egindako adierazpenaren bidez. Hala ere, legeak aita aipatzen du, adierazpena egitera behartuta daudenen artean, lehenengo lekuan.

Lege berrian ezarritakoa dela medio, eta erregelamendua aintzat hartuta, uler daiteke Kode Zibilaren 132. artikulua aldatu egin dela; horrela, aitak egindako adierazpenaren ondorioz, idazkUNETAN naturaren araberako ama nor den ezagutarazten bada, halako ezagutarazteak

padre. De esta manera adquirirán seguridad las inscripciones, no infrecuentes, de filiación materna natural practicadas en virtud de declaración formulada por padre concubinario. No se olvida la defensa que la Ley concede a la víctima de falsas atribuciones de filiación, y con esa finalidad bastará, según el reglamento, que conste al Encargado la oposición de la interesada para omitir toda mención de la maternidad en la inscripción. Así se evitarán asientos afrentosos, que habrían de quedar inmediatamente sin el efecto propio, en virtud del ulterior asiento de desconocimiento.

En cuanto a la filiación legítima, se han seguido rigurosamente las prescripciones del Código Civil, teniendo en cuenta que por dicho Cuerpo legal la presunción de legitimidad se asienta en un doble tipo de circunstancias, inscribibles unas en el folio de nacimiento y otras en la Sección II del Registro.

Sobre documentos públicos aptos para el reconocimiento de la filiación natural, se ha seguido la doctrina consagrada en la práctica.

En congruencia, por último, con la especial eficacia que tiene la inscripción, no se ha permitido la de reconocimiento alguno sin que se acredite, con un mínimo de garantías la adecuación al ordenamiento jurídico.

ez dira ofizioz ezabatuko. Ondorenez, naturaren araberrako amarengandiko seme-alabatasunari buruz egindako inskripzioek segurtasuna lortuko dute, ez-konduta ez dagoen aitaren adierazpenaren bidez egindakoak izan arren; gogoan izan behar da halako inskripzioak maiz-sarri egiten direla. Ezin da ahaztu legeak, seme-alabatasunaren eratzikopen faltsuen aurrean, biktima babesten duela; helburu horretarako, nahikoa da, erregelamenduaren arabera, arduradunak emakume interesdunaren aurkakotasuna jakitea, inskripzioan amatasunari buruz aipamenik egin ez dadin. Modu horretan, idazkun laidogarriak, berehalakoan berezko ondorerik gabe geratu behar direnak, saihestu egingo dira, amak seme-alabatasunaren berri ez izateari buruz gero egindako idazkunen ondorioz.

Seme-alabatasun legitimoari dagokionez, Kode Zibileko arauak zorrotz aplikatu dira; horretarako, aintzat hartu da lege-testu horren ondorioz legitimazioari buruzko presuntzioa bi inguruabar motatan oinarritzen dela; inguruabar horietako batzuk jaiotza-folioan inskribatu daitezke, eta besteak, Erregistroko II. atalean.

Naturaren araberrako seme-alabatasuna aitortzeko agiri publikoei buruz, praktikan erabilitako doktrina aplikatu da.

Azkenik, eta inskripzioak duen eragingarritasun bereziarekin bat etorritik, ez da onartu inolako aitortpenik inskribatzea, gutxienerako berme batzuekin egiaztatzen ez bada aitortpen hori antolamendu juridikoari egokitzen zaiola.

A fin de facilitar la identificación de la persona y, a la vez, con el propósito de velar la situación enojosa del que carece de padres conocidos, los Encargados consignarán en la inscripción de nacimiento o por nota marginal nombres de frecuente uso como si fueran de padre o madre del inscrito, que constarán preceptivamente entre las menciones de identidad.

Se completa y desarrolla lo que la Ley dispone sobre una serie de cuestiones, como son la de imposición de nombre propio, quién la hace y cómo; apellidos, en general; determinación de los de legitimado por concesión soberana y de los que adquieren la nacionalidad española; reglas para la inversión de los apellidos del hijo natural reconocido sólo por la madre; apellidos adoptivos y expedientes sobre nombres y apellidos. En cuanto a apellidos de los hijos adoptivos, se sigue lo que el Código Civil dispone después de su última reforma, y se completan, conforme a su espíritu, las normas sustantivas, procurando la mayor protección de los intereses del adoptado.

Se regula especialmente el expediente sobre nacionalidad y se dan normas complementarias de las sustantivas, en las que, naturalmente, se inspiran; así las relativas a opción y a la nacionalidad de la mujer casada.

En general, no es posible que el Registro proporcione una prueba directa de la nacionalidad de la persona; pero para facilitar su determinación se pretende llevar al Registro, por vía de inscripción o anotación, según proceda,

Pertsonaren identifikazioa errazteko, eta, aldi berean, guraso ezagunik ez duen pertsonaren egoera saminari aurre egiteko, arduradunek jaiotza-inskripzioan edo orri-bazterreko oharraren bidez jasoko dituzte ohikoak diren izenak, izenok inskribatutakoaren aita edo amarenak izango balira bezala; izen horiek, nahitaez, nortasun-aipamenean artean agertuko dira.

Bestalde, legeak arazo jakin batzuen inguruan xedatutakoa osatu eta gartzten da; arazo horiek, besteak beste, hurrengoak dira: izen berezia nork ezartzen duen eta nola; abizenak, orokorrean; errege-ematearen ondorioz legitimatutakoaren abizenak eta Espainiako nazio-tasuna eskuratzen dituztenena; amak bakarrik aitortu duen naturaren arabera seme edo alabaren abizenak alderantzeko erregelak; adopziozko abizenak eta izen-abizenei buruzko espedienteak. Adopziozko seme-alaben abizenen kasuan, Kode Zibilak azken eraldaketaren ondoren xedatutakoa aplikatzen da, eta, horren espirituaren arabera, arau substantiboak osatu dira, adoptatuaren interesei babesik handiena emateko.

Naziotasunari buruzko espedienteak bereziki arautu da, eta arau substantiboak osagarriak eman dira, lehenengoak oinarri hartuta; halakoak dira, esate baterako, aukerari eta emakume ezkonduaren naziotasunari buruzkoak.

Orokorrean, ezinezkoa da Erregistroak zuzeneko frogak ematea pertsonaren naziotasunari buruz; hala ere, naziotasun hori zehaztea errazagoa izan dadin, Erregistroa eraman nahi dira, inskripzioaren edo idatzoharraren bidez,

un gran número de los hechos influyentes en la misma.

La facilidad para inscribir ciertas declaraciones sobre nacionalidad se atenúa con el limitado alcance que se concede a la fe del Registro.

En cuanto a matrimonio, se adapta el Reglamento al vigente Concordato del Estado español con la Santa Sede, cuyas doctrinas están sustancialmente reflejadas en el Código y en la Ley del Registro Civil. La inscripción del matrimonio canónico, por lo demás, es objeto de mero desarrollo reglamentario. Las normas sobre matrimonio civil siguen la línea impuesta por el Código, recientemente reformado; por la nueva Ley del Registro, por el Decreto 26 octubre 1956 y por la Circular de la Dirección General de los Registros y del Notariado, de 2 abril 1957. Se concreta el régimen de consultas, recursos gubernativos e impugnaciones judiciales, perfilando las funciones del Juez de Paz en tan delicado acto jurídico.

En cuanto a inscripciones de defunción, destacan las normas sobre fallecimiento en circunstancias excepcionales, las cuales implican un régimen de carácter más común y ordinario, que suple con ventaja a las numerosas y casuísticas disposiciones dictadas para situaciones de emergencia. También es de notar la flexible regulación de la licencia de inhumación para eliminar las dificultades suscitadas por la ordenación anterior.

kasuan-kasuan bidezkoa zer den kontuan hartuta, zehaztapen horren gain eragina izan dezaketen egitate asko.

Naziotasunari buruzko adierazpen jakin batzuk inskribatzeko erraztasuna ahuldu egin da, Erregistroaren fedeari norainoko mugatua aitortuz.

Ezkontzaz denaz bezainbatean, erregelamendua Espainiako estatuak Aulki Santuarekin duen indarreko hitzarmenari egokitu zaio. Aulki Santuaren doktrinak, funtsean, Kode Zibilean eta Erregistro Zibilaren Legean ere islatu dira. Ezkontza kanonikoaren inskripzioa, bestalde, erregelamenduaren bidez garatu besterik ez da egiten. Ezkontza zibilari buruzko arauak honako hauek izan dituzte gogoan: eraldatu berri den Kodea; Erregistroko Lege berria; 1956ko urriaren 26ko Dekretua; eta 1957ko apirilaren 2an Erregistroen eta Notariozaren Zuzendaritza Nagusiak emandako zirkularra. Ildo beretik, kontsulten, gobernu-errekurtsoen eta epaiketa bidezko aurkaratzeen araubidea zehaztu da, egintza juridiko konplexu horretan bake epaileak dituen eginkizunak finkatuz.

Heriotza-inskripzioei dagokienez, nabarmentzekoak dira salbuespeneko inguruabarretan gertatutako heriotzei buruzko arauak. Arauok araubide erki-deago eta arruntagoa barneratzen dute; araubide horrek, denon onurarako, presa-egoeretan emandako xedapen ugari nahiz kasuistikoak ordeztu ditu. Aipatzekoa da, halaber, hobiratze-baimenaren arauketa malgua, aurreko antolamenduak sortutako zailtasunak ezabatzeko.

Respecto a la Sección cuarta, se han tenido en cuenta las disposiciones sobre Registro de Tutelas y Central de Ausentes. Por lo que hace a las representaciones legales distintas de la tutela o de la del ausente, el Reglamento es somero y restrictivo, porque la Ley en esta parte, tiene un indudable carácter de ensayo; la prudencia aconseja recoger los datos de la experiencia antes de acometer una ordenación más amplia, detallada y precisa. No se han excluido, sin embargo, las representaciones que constan en documentos judiciales por la necesidad de adaptación al tenor de la Ley; su publicidad formal será más fácil por el Registro Civil que la que podrían proporcionar los archivos judiciales.

Se precisan los supuestos en que es necesario expediente gubernativo; se completa la concisión del texto legal y se dan reglas especiales para ciertos expedientes y para la inscripción de las resoluciones.

Especial atención se ha dedicado a los expedientes de inscripción de nacimiento fuera de plazo, a fin de disipar el confusionismo que existía hasta ahora sobre el modo de fijar la filiación dentro de este expediente.

La reconstrucción del Registro es objeto de un detallado ordenamiento, en el que se recogen las enseñanzas de la práctica y se prevén fórmulas flexibles, sin mengua de las debidas garantías.

Las declaraciones con valor de simple presunción podrán utilizarse, entre otros fines, para conseguir verdaderos

Laugarren atalean aintzat hartu dira Tutoretzen Erregistroari eta Absenteen Erregistro Zentralari buruzko xedapenak. Tutoretzaz edo absentearen ordezkartzaz besteko lege-ordezkaritzei dagokienez, erregelamendua azalekoa eta murrizgarria da, legeak atal horretan zalantzarik gabeko saiakuntza-izaera duelako. Zuhurtasunak esperientziaren datuak jasotzea gomendatzen du, antolamendu hedatuago, zehatzago eta xehagoa egin aurretik. Nolanahi ere, ez dira baztertu agiri judizialetan jasotako ordezkartzak, horiek legeari egokitu behar zaizkiola arrazoi moduan hartuta; horien publizitate formala Erregistro Zibilaren bidez egitea errazagoa izango da, artxibo judizialek eman dezaketen publizitatea baino.

Zehaztu egin da zein kasutan den beharrezkoa gobernu-espedienteak; lege-testuaren zehaztasuna osatu egin da; eta erregela bereziak eman dira, espediente jakin batzuetarako eta ebazpenak inskribatzeko.

Arreta berezia jarri da epez kanpoko jaiotza-inskripzioari buruzko espedienteetan, orain arte espediente horren barruan seme-alabatasuna zehazteko zegoen nahastea argitu nahian.

Erregistroa berrerratzeari buruz, antolamendu zehatza ezarri da, eta, antolamendu horretan, praktikaren irakaskuntzak jaso eta formula malguak finkatu dira, betiere behar besteko bermeak urritu gabe.

Presuntzio hutsaren balioa duten adierazpenak erabili ahal izango dira, besteak beste, naziotasunari buruzko

certificados de nacionalidad, similares a los que se difunden en la legislación comparada, y cuya falta se acusaba en la nuestra.

La tramitación de los expedientes está presidida por los criterios de economía, celeridad y eficacia que el Estado trata de imponer en todas sus actuaciones. Por lo que afecta a la competencia se parte del principio de atribuirle al Juez de Primera Instancia, dada la importancia que tiene cuanto afecte al estado civil, sin perjuicio de confiar la instrucción e, incluso en los casos que lo permita la naturaleza o menor entidad de la cuestión planteada —la decisión— a los propios Encargados, en aras a la rapidez y a fin de evitar la excesiva acumulación de asuntos en los Juzgados de Primera Instancia.

La realidad exige una fácil prueba de la vida y de la soltería o viudez, y a este efecto se brindan a la Administración y a los particulares los más sencillos medios probatorios, la comparecencia del sujeto y la declaración jurada, respectivamente, con lo que, además, de acuerdo con las nuevas tendencias, se simplificará la mecánica burocrática. Se dispone, sin embargo, que se sigan expidiendo fes de vida, soltería o viudez a cuyo efecto se ha establecido un procedimiento, con un mínimo de garantías, adecuado al fin pretendido.

Sin perjuicio del principio de gratuidad respecto a los asientos u otros conceptos determinados, el Reglamen-

egiazko ziurtagiriak lortzeko; ziurtagiri horiek eta legeria konparatuan hedatutakoak antzekoak izango dira, gure legerian horien gabezia nabaria baitzen.

Espedienteen izapidetzan nagusi dira estatuak bere jardura guztietan ezarri nahi dituen irizpideak, alegia, ekonomia, azkartasuna eta eragingarritasuna. Eskumenaren kasuan, hori lehen auzialdiko epaileari eratzikitzen zaio orokorrean, oso garrantzitsua baita, egoera zibilaren gain eragina duelako. Hala ere, arduradunen esku utz daiteke izapidetza, eta, are gehiago, erabakia, arazoaren izaerak edo garrantzi txikiak hori ahalbidetzen duenean; horrek, azkartasuna ekartzeaz gain, lehen auzialdiko auzitegietan arazo gehiegi ez piltzea eragingo du.

Errealitatean nahitaezkoa da bizitzari, ezkongabetasunari edo alarguntasunari buruz froga erraza izatea, eta, ondore horretarako, frogabiderik soilenak eskatzen zaizkie Administrazioari eta partikularrei, hala nola, subjektuaren agerraldia eta zinpeko aitortpena, hurrenez hurren. Horrekin batera, eta joera berrien arabera, mekanika burokratikoak erraztu egingo da. Dena den, aurrerantzean ere, bizitza-, ezkongabetasun-, edo alarguntasun-agiriak egin ahal izango dira; horretarako, prozedura zehatza ezarri da, gutxieneko bermeak dituen eta nahi den helburua lortzeko egokia dena.

Idazkunen edo zehaztutako beste kontzeptu batzuen kasuan, doakotasun-printzipioari kalterik egin gabe, errege-

to respeta el tradicional régimen arancelario y al propio tiempo regula el beneficio registral de pobreza con gran generosidad, facilitando extraordinariamente la prueba, de acuerdo con las exigencias de la práctica. Se prevén también otros supuestos de gratuidad en la expedición de certificaciones y se elimina el confusionismo actual en tales casos.

La integración en el Reglamento de la ordenación orgánica del Cuerpo de Médicos del Registro Civil contribuirá a la simplificación de los textos legales, actualmente vigentes, sin mengua de lo que exige una adecuada sistematización legislativa, ya que dichos funcionarios están afectos al exclusivo servicio del Registro. Se ha procurado que, sin perjuicio de los derechos adquiridos, la reglamentación responda a los criterios que inspiraron la ordenación general de los funcionarios en cuanto no exija otra cosa la especialidad de la función. Se incorpora, simplificado, el ordenamiento de su Mutualidad Benéfica, creada por Orden 17 julio 1951, y, para representación del Cuerpo, se crea una Junta especial. El régimen económico de dichos funcionarios sigue siendo el de la percepción directa de derechos arancelarios. Teniendo en cuenta las necesidades del servicio y la posibilidad de una congrua dotación de los funcionarios, se limita dicho servicio a las capitales de provincia y poblaciones de más de 50.000 habitantes.

La complejidad y el carácter innovador de la nueva legislación plantea

lamenduak ohiko arantzel-araubidea errespetatu, eta, aldi berean, doako justiziaren onura eskuzabaltasunez arautu du Erregistroan. Hori dela eta, froga asko erraztu da, praktikaren beharriaren arabera. Halaber, beste doakotasun-kasu batzuk ezarri dira ziurtagiriak egiterakoan, eta halako kasuetan egundaino egon den nahastea ezabatu da.

Erregelamenduak Erregistro Zibileko Medikuen Kidegoari buruzko antolamendu organikoa barneratu du, eta horrek erraztu egingo ditu gaur egun indarrean dauden lege-testuak, betiere lege-sistematizazio egokiarentzat nahitaezkoa denari kalterik egin gabe, aipatu funtzionarioek Erregistroaren zerbitzuean baitihardute modu eksklusiboan. Eskuratutako eskubideei kalterik egin gabe, ahaleginak egin dira arauketak barnera ditzan funtzionarioen antolamendu orokorrak oinarri gisa zituen irizpideak, eginkizunaren berezitasuna dela-eta besterik behar ez den bitartean. Ongintza-mutualitatea 1951ko uztailaren 17ko Aginduaren bidez sortu zen, eta mutualitate horren antolamendua, sinplifikatuta, orain gehitu da; gainera, batza berezi bat sortu da kidegoa ordezkatzeko. Aipatu funtzionarioen araubide ekonomikoa izango da, aurrerantzean ere, arantzel-eskubideak zuzenean jasotzekoa. Zerbitzuaren beharriarenak eta funtzionarioen zuzkidura egokia egiteko aukera aintzat hartuta, zerbitzu hori probintzietako hiriburuetan eta 50.000 biztanletik gorako herrietan baino ez da izango.

Legeria berria, beraz, konplexu eta berritzailea da, eta, horren ondorioz,

una prolija serie de cuestiones de Derecho intertemporal, entre otras, las de cierre de la antigua Sección IV, incorporación al Registro Civil del Registro de Tutelas, publicidad formal, nuevos libros e impresos, nombre y apellidos y cartas de naturaleza. A resolverlas tienden las disposiciones transitorias, con las que se pretende también liquidar la compleja problemática suscitada a raíz de la guerra de liberación por los asientos practicados en territorio no sujeto a las autoridades legítimas que ya fue abordada en disposiciones anteriores; a este efecto, y con el fin de mantener, hasta donde sea posible, la virtualidad de los asientos, se extiende en principio, a los practicados en dichos territorios, el régimen ordinario sobre defectos y procedimientos de corrección.

En las disposiciones finales se determina el régimen jurídico del Registro en las provincias africanas, que no puede ser otro que el general, salvo las excepciones que impongan las especialidades existentes en materia de órganos y de hechos inscribibles relativos a indígenas. La última disposición deja vigente el sistema actual de Aranceles, pues, aun reconociendo que la nueva legislación exige determinadas adaptaciones, éstas tendrán cabida en las disposiciones que les sean específicas.

En su virtud, a propuesta del Ministro de Justicia, de conformidad con el dictamen del Consejo de Estado y previa deliberación del Consejo de Ministros, dispongo:

zuzenbide iragankorreko hainbat arazo sortu dira, ulerbidez, antzinako IV. atalaren itxiera, Tutoretzen Erregistroa Erregistro Zibilari eranstea, publizitate formala, liburu eta inprimaki berriak, izen-abizenak eta herritartze-agiriak. Xedapen iragankorren helburua da arazo horiek konpontzea. Xedapenon bidez amaitu nahi da, berebat, askatze-gerraren ondorioz sortutako arazo korapilatsua-ekin; arazo hori gertatu zen, agintari legitimoen menpe ez zeuden lurraldeetan idazkunak egiteagatik, eta lehena-goko xedapenetan ere hori konpontzeko ahaleginak egin ziren. Hori dela eta, ahal den neurrian, idazkunen eragin-garritasunari eusteko, aipatu lurraldeetan egindako idazkUNETARA hedatu da akatsei eta akatsok zuzentzeko prozedurei buruzko araubide arrunta.

Azken xedapenetan, Afrikako probintzietan dagoen Erregistroaren araubide juridikoa zehaztu da; kasu horretan, araubide orokorra baino ez da aplikatu-ko, salbu eta, indigenei dagokienez, organoen arloan eta inskribatzeko moduko egitateen arloan salbuespenak egin behar direnean. Azken xedapenak arantzelen egungo sistema indarrean utzi du; izan ere, legeria berriaren arabera egokitzapen jakin batzuk nahitaezkoak direla aitortu arren, egokitzape-nok euri dagozkien xedapen zehatzetan jasoko dira.

Hori guztia dela bide, Justizia ministroak hala proposatuta, Estatu Kontseiluaren irizpenarekin bat etorriz, eta Ministroen Kontseiluak aurretik hala erabakita, xedatu dut:

Artículo único

Se aprueba, con el carácter de definitivo, el adjunto Reglamento del Registro Civil, que comenzará a regir el primero de enero de 1959.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

CAPÍTULO I

Reglas comunes y complementarias

Artículo 1

Los órganos del Registro Civil se comunicarán directamente entre sí de oficio. Por el mismo procedimiento se realizará la comunicación entre los Registros Consulares y los situados en España.

Artículo 2

Las autoridades, funcionarios o particulares podrán formular peticiones ante el Registro Civil de su residencia o domicilio, cuando la oficina competente, a la que se dará inmediato traslado, radique en otro término o demarcación.

Las notificaciones y, en general, toda comunicación al peticionario o parte se hará de oficio a través de la oficina de presentación en el domicilio que hubieren señalado en la misma población.

Artikulu bakarra

Behin betiko izaerarekin onetsi da honi erantsitako Erregistro Zibilaren Erregelamendua; erregelamendu hori indarrean jarriko da 1959ko urtarrilaren batean.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA

Erregela erkideak eta osagarriak

1. artikulua

Erregistro Zibileko organoak zuzenean eta ofizioz komunikatuko dira euren artean. Kontsulatueta erregistroen eta Espainian daudenen arteko komunikazioa prozedura berberaren bidez egingo da.

2. artikulua

Agintariak, funtzionarioak edo partikularrek eskaerak egin ahal izango dituzte horien bizilekua edo egoitza non izan eta bertako Erregistro Zibilean, baldin eta bulego eskuduna beste udalerrri edo mugape batean badago; bulego eskudun horri berehalakoan bidaliko zaizkio eskaerok.

Jakinarazpenak eta, orokorrean, eskatzaileari edo alderdiari egindako komunikazio oro ofizioz egingo dira, aurkezte-bulegoaren bitartez, herri horretan bertan aipatutako egoitzan.

El Encargado, asistido, en su caso, por el Secretario, deberá trasladarse al lugar en que haya de formularse una declaración inscribible por persona que, por enfermedad u otra causa, no pueda acudir al Registro.

Artículo 3

Quienes tienen capacidad para realizar un acto de estado civil, la poseen para todas las actuaciones registrales relativas al mismo.

Artículo 4

La muerte del interesado no impide la inscripción pretendida ni la tramitación de un expediente en cualquier tiempo incoado.

Artículo 5

Salvo justificadas razones de urgencia, el despacho de asuntos se llevará a efecto a las horas de servicio, que se anunciarán en lugar visible al público.

La inscripción de defunción se considera siempre de urgencia.

Artículo 6

Para las obligaciones impuestas en esta legislación que no tengan señalado cumplimiento inmediato o plazo especial, éste será de tres días.

No se computará el día en que acaezca el hecho inicial del plazo.

Norbait, gaixotasunaren ondorioz edo beste arrazoi baten ondorioz, ezin bada Erregistrora joan, eta inskribatze-ko moduko adierazpen bat egin behar badu, adierazpen hori zein tokitan egin behar eta toki horretara joango da arduraduna, hala denean idazkariaren laguntzarekin.

3. artikulua

Egoera zibilari buruzko egintza bat egiteko gaitasuna dutenek gaitasuna dute, orobat, horri lotuta dagoen erre-gistro-jardun guztirako.

4. artikulua

Interesdunaren heriotzak ez du eragozten lortu nahi izan den inskripzioa, ezta edozein unetan hasitako espedientearen izapidetza ere.

5. artikulua

Presako arrazoi egiaztatuak daudenean izan ezik, gaiak lan-orduetan aztertuko dira, lan-orduok jendeak ikusteko moduko lekuan iragarriko direla.

Heriotzaren inskripzioa presakoa da beti.

6. artikulua

Legeria honetan ezarritako betebeharrentzat berehalako betetzerik edo epe berezirik ezarri ez bada, hori hiru eguneko da.

Ez da zenbatuko epearen hasierako egitatea zein egunetan gertatu eta egun hori.

Artículo 7

En las peticiones que promuevan expediente o que exijan una legitimación especial, deberá hacerse constar, por diligencia del Encargado, Secretario u Oficial la identidad del peticionario, a no ser que la firma de éste hubiera sido autenticada o se comparezca por Procurador de los Tribunales.

Deberá constar la identidad de los testigos en todo caso.

Los particulares o los testigos que no fueren conocidos podrán ser identificados por dos testigos de conocimiento o mediante documento oficial de identificación.

Cuando para la inscripción sea necesaria la identificación, se expresará por diligencia en acta separada o en el propio cuerpo del asiento.

Artículo 8

La oficina de presentación dará al peticionario, si éste lo pidiera, justificante de haberse formulado, verbal o por escrito, petición o declaración, o de la recepción de documentos, en su caso.

Se admitirá como recibo la fotocopia o copia simple del escrito o documento de que se trate, fechada, firmada y sellada por el funcionario a quien se entregue.

Artículo 9

En todas las oficinas del Registro habrá, a disposición del público, un

7. artikulua

Espedientea sustatzen edo legitima-zio berezia galdatzen duten eskaer-tan, eskatzailearen nortasuna agerra-razi beharko da, arduradun, idazkari edo ofizialaren eginbidearen bidez, salbu eta eskatzailearen sinadura kau-totua izan denean edo agerraldia auzi-tegietako prokuradorearen bitartez egiten denean.

Edozein kasutan ere, lekukoek nor-tasuna agertu beharko da.

Partikularrak edo lekukoak ezeza-gunak badira, horiek identifika daitez-ke bi ezagutza-lekukoren bidez edo identifikatzeko balio duen agiri ofizia-laren bidez.

Identifikazioa inskripziorako be-harrezkoa denean, identifikazio hori eginbidearen bidez adieraziko da, akta bananduan edo idazkunaren edukian.

8. artikulua

Aurkezte-bulegoak egiaztagiria emango dio eskatzaileari, horrek hala eskatzen badu, eskaera edo adierazpe-na ahoz nahiz idatziz egin dela, edo, hala denean, agiriak jaso direla egiaz-tatzeko.

Jaso-agiri gisa onartuko da kasuan kasuko idazki edo agiriaren fotokopia edo kopia soila, hori zein funtzionario-ri eman eta berorrek data, sinadura eta zigilua jarriz gero.

9. artikulua

Erregistroko bulego guztietan egon-go da, jendearen esku, legearen nahiz

ejemplar de la Ley y del Reglamento y de los formularios oficiales.

Artículo 10

En el Registro se utilizarán los libros e impresos oficiales, y, en su defecto, se seguirán los modelos oficiales, haciéndose constar la causa por la que se prescinde del impreso oficial.

El blanco del impreso destinado a la circunstancia que no pueda acreditarse se llenará con la frase «no consta».

Artículo 11

Los asientos, certificaciones y diligencias expresarán en su caso, el carácter de sustituto del autorizante. Tratándose de Juez de paz, no se hará mención de su calidad de delegado ni de circunstancia alguna del Juez Encargado.

Artículo 12

Las menciones de identidad consisten, a ser posible, en los nombres y apellidos, nombre de los padres, número del documento nacional de identidad, naturaleza, edad, estado, domicilio y nacionalidad.

Artículo 13

Firmarán dos testigos a ruego de quien debe y no sabe o no puede hacerlo.

Los mismos testigos no podrán sustituir en el asiento o diligencia a más de una persona.

erregelamenduaren eta formulario ofizialen ale bat.

10. artikulua

Erregistroan liburu eta inprimaki ofizialak erabiliko dira, eta, horiek izan ezean, eredu ofizialak erabiliko dira, inprimaki ofiziala zergatik ez den erabili agerraraziz.

Inprimakiak zuriz duen zatia, egiaztatu ezin den inguruabarrari zuzendutakoa, «ez da jaso» esaldiarekin bete da.

11. artikulua

Idazkunek, ziurtagiriek eta eginbideek, hala denean, eskueslea ordezkoa dela adieraziko dute. Bake epailearen kasuan, ez da aipatuko beraren eskuorde-izaera, ezta epaile arduradunaren inguruabarririk ere.

12. artikulua

Nortasun-aipamenak izango dira, ahal izanez gero, izen-abizenak, gurasoen izenak, nortasun-agiriaren zenbakia, izaera, adina, egoera, egoitza eta naziotasuna.

13. artikulua

Norbaitek ez badaki sinatzen edo ezin badu sinatu, horren eskabidez bi lekukok sinatuko dute.

Lekuko horiek ezin izango dituzte pertsona bat baino gehiago ordeztu idazkunean edo eginbidean.

Artículo 14

Rubricará los asientos y certificaciones el empleado que materialmente los extienda.

Artículo 15

Las diligencias serán fechadas y firmadas por el Encargado y por el Secretario, donde existiere.

Artículo 16

En las actuaciones y expedientes son de aplicación supletoria las normas de jurisdicción voluntaria.

CAPÍTULO II**De la publicidad del Registro****SECCIÓN I***De las certificaciones***Artículo 17**

El Encargado y, por su delegación, el Secretario son los únicos funcionarios que pueden certificar de los asientos del Registro. Están, además, obligados a informar a los interesados para facilitarles la publicidad registral.

El interés en conocer los asientos se presume en quien solicita la certificación.

Artículo 18

La manifestación y examen de los libros tendrá lugar a la hora más conveniente para el servicio y bajo la vigilancia del Encargado.

14. artikulua

Idazkunak eta ziurtagiriak benetan zein langilek egin eta berak izenpetuko ditu.

15. artikulua

Arduradunak data jarriko die eginbideei, eta horiek sinatuko ditu, eta idazkariak ere, horrelakorik badago.

16. artikulua

Jardunean eta espedienteetan, borondatezko jurisdikzioaren arauak ordezkoko moduan aplikatzen dira.

II. KAPITULUA**Erregistroko publizitatea****I. ATALA***Ziurtagiriak***17. artikulua**

Arduraduna eta, horren eskuordetzaren ondorioz, idazkaria, Erregistroko idazkunak ziurta ditzaketen funtzionario bakarrak dira. Gainera, behartuta daude interesdunei informazioa ematera, Erregistroko publizitatea errazteko.

Ziurtagiria eskatzen duenak idazkunen berri izateko interesa duela uste izango da.

18. artikulua

Liburuak erakutsi eta aztertuko dira zerbitzua egiteko komenigarrien den orduan eta arduradunaren zainpean.

Artículo 19

Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 21, las autoridades y funcionarios, cuando lo exijan los asuntos de su respectiva función y con indicación de los mismos, pueden conocer, por examen directo, certificación o nota simple informativa, el contenido de cualquier asiento o documento del Registro, salvo los correspondientes al Libro de Matrimonios Secretos.

zuzenduta daudenean, ezta liburu-egunkarietan ere.

269. artikulua

Argitalpenaren eskaera edozein erregistrotan aurkeztu ahal izango da. Hala denean, horrekin batera, aurrez hildako ezkontidearen heriotza-froga aurkeztu beharko da.

270. artikulua

Isilpeko ezkontza zuzenean inskriba daiteke Erregistro arruntean, horren argitalpena eska dezaketenek hala adierazita, baldin eta, eskaeran, Erregistro Zentraleko arduradunak eginbidearen bidez aipatzen badu, hura inskribatzeko ziurtagiria edo akta ikusita, isilpeko ezkontza Liburu Berezian inskribatu gabe dagoela.

VII. ATALA

Ezkontzari buruzko idatzoharrak

271. artikulua

Ezkontzari buruzko idatzoharra egin beharko da, baldin eta espedientearen bidez edo 256. artikulua aipatu agirietatik edozeinen bidez ezkontza hori jaso bada, eta ezin bada inskribatu Kode Zibilaren arabera ezkontzaren baliozkotasunerako nahitaezko diren betekizunak ez betetzeagatik edo betekizunok behar bezala ez egiaztatzeagatik.

272. artikulua

Alderdietatik edozeinek eska dezake deuseztasun, banantze edo dibortzioari

lidad, separación o divorcio mediante la presentación del testimonio de su admisión.

CAPÍTULO III

De la Sección de defunciones

Artículo 273

La declaración se formulará inmediatamente de la muerte.

La obligación de declarar afecta a los consanguíneos hasta el cuarto grado y a los afines hasta el segundo.

Artículo 274

El facultativo que haya asistido al difunto en su última enfermedad o cualquier otro que reconozca el cadáver enviará inmediatamente al Registro parte de defunción en el que, además del nombre, apellidos, carácter y número de colegiación del que lo suscribe, constará que existen señales inequívocas de muerte, su causa y, con la precisión que la inscripción requiere, fecha, hora y lugar del fallecimiento y menciones de identidad del difunto, indicando si es conocido de ciencia propia o acreditada y, en este supuesto, documentos oficiales examinados o menciones de identidad de persona que afirme los datos, la cual también firmará el parte.

Si hubiera indicios de muerte violenta se comunicará urgente y especialmente al Encargado.

buruzko demandaren idatzoharra egitea, hori onartzen duen lekukotza aurkeztuta.

III. KAPITULUA

Heriotzen atala

273. artikulua

Adierazpena heriotza gertatu eta berehalakoan egingo da.

Adierazpena egiteko betebherrak eragina du laugarren gradurainoko odolkoengan eta bigarren gradurainoko ezkontza-ahaideengan.

274. artikulua

Hildakoari bere azken gaixotasunean lagundu dion adituak edo hilotza aztertu duten adituetatik beste edozeinek berehala bidaliko dio heriotzaren parte Erregistroari, eta, parte horretan, izenaz, abizenez, izaeraz eta hori sinatzen duenaren bazkide-zenbakiaz gain, jasoko dira heriotzaren zeinu nabariak, haren arrazoia, eta, inskripziorako nahitaezkoa den zehaztasunarekin, heriotzaren data, ordua eta lekua, eta hildakoaren nortasun-aipamenak, hori norberarentzat ezaguna bada edo egiaztatutakoa bada; azken kasu horretan, aztertutako agiri ofizialak edo datuok egiaztatzen dituen pertsonaren nortasun-aipamenak aipatuko dira, eta pertsona horrek ere parte sinatuko du.

Indarkeriazko heriotzaren zantzuak badaude, horiek presaz eta bereziki komunikatuko zaizkio arduradunari.

Artículo 275

En los Registros que tuvieran adscrito Médico del Registro Civil comprobará éste, por reconocimiento del cadáver, los términos del parte y suplirá sus omisiones, para lo cual se le dará, como mínimo, cuatro horas.

En los que no lo tuvieren, el Encargado, antes de inscribir, exigirá al Médico obligado el parte adecuado, en cuanto lo permita la urgencia de la inscripción y, no obteniéndolo, o siendo contradictorio con la información del declarante, comprobará el hecho por medio del sustituto del Médico del Registro Civil, que ratificará o suplirá el parte exigido.

El Médico del Registro Civil o sustituto más cercano que resida en población situada a más de dos kilómetros podrá excusar su asistencia. La comprobación se hará entonces a elección del Encargado o juez de Paz, por él mismo, por quien tiene a este respecto los mismos deberes y facultades o delegando, bajo su responsabilidad, en dos personas capaces; el resultado se diligenciará en acta separada.

En los Registros Consulares, en defecto de parte adecuado, se acudirá a la comprobación supletoria a que se refiere el párrafo anterior.

Cuando las informaciones fueren defectuosas u ofrecieren dudas fundadas, el Encargado, por sí solo o asistido de perito, practicará las comproba-

275. artikulua

Erregistro Zibileko medikua atxikita duten erregistroetan, mediku horrek frogatuko ditu, gorpuaren azterketa eginenez, partearen gorabeherak, eta horren hutsuneak beteko ditu, horretarako, gutxienez, lau ordu izanik.

Halako medikurik ez duten erregistroetan, arduradunak, inskripzioa egin aurretik, parte egokia eskatuko dio behartuta dagoen medikuari, inskripzioaren presak hori ahalbidetzen duen unean, eta parte hori eskuratzen ez badu edo adierazleak emandako informazioarekin bat ez badator, Erregistro Zibileko medikuaren ordezkioak egiaztatuko du egitatea, horrek nahitaezko parte berretsiz edo hori ordeztuta.

Erregistro Zibileko medikuak edo hurbilen dagoen ordezkioak, ordezkio hori bi kilometro baino gehiagotara dagoen herrian bizi bada, adieraz dezake ezin dela bertara joan. Egiaztapena, kasu horretan, arduradunak edo bake epaileak aukeratu bezala egingo da, alegia, berorrek, arlo horretan betebeharrak eta gaitasun berberak dituen norbaitek, edo, haren erantzukizunpean, gai diren bi eskuordek egingo dute; emaitza eginbidearen bidez akta bananduan jasoko da.

Kontsulatuetakoko erregistroetan, parte egokirik izan ezean, aurreko lerroak dak aipatutako ordezkio egiaztapenera joko da.

Informazioa akastuna bada edo informazio horrek zalantza oinarridunak sorrarazten baditu, arduradunak, bere kabuz edo adituaren laguntzarekin,

ciones oportunas antes de proceder a la inscripción.

Artículo 276

Las comprobaciones y demás diligencias para la inscripción y la expedición de la licencia de entierro se realizarán dentro de las veinticuatro horas siguientes a la defunción.

Artículo 277

La inscripción puede practicarse, en todo caso, y sin perjuicio de lo que dispone el artículo siguiente, por sentencia u orden de la autoridad judicial que afirme, sin duda alguna, el fallecimiento.

Artículo 278

Cuando el cadáver hubiera desaparecido o se hubiera inhumado, no basta para la inscripción la fama de muerte, sino que se requiere certeza que excluya cualquier duda racional.

En su caso, a la orden de la autoridad judicial que instruye las diligencias seguidas por la muerte, debe haber precedido informe favorable del Ministerio fiscal, y si se trata de autoridad judicial militar, el del Auditor; si la autoridad es extranjera, se instruirá, para poder inscribir, el oportuno expediente.

Para precisar las circunstancias en el expediente o diligencias, se tendrán en cuenta las pruebas previstas para el de reconstitución.

egiaztapen egokiak egingo ditu inskripzioa egin aurretik.

276. artikulua

Ehorzketa-baimena inskribatzeko nahiz luzatzeko egiaztapenak eta gainerako eginbideak heriotzaren osteko hogeita lau orduetan egingo dira.

277. artikulua

Inskripzioa egin daiteke, edozein kasutan eta hurrengo artikulua xedatutakoari kalterik egin gabe, agintari judizialak emandako epai edo agindua- ren bidez, epai edo agindu horrek, inolako dudarik gabe, heriotza baieztatzen badu.

278. artikulua

Gorpua desagertu edo hobiratu bada, heriotza-zantzua ez da nahikoa inskripzioa egiteko; aitzitik, beharrezkoa da ziurtasuna izatea, arrazoizko zalantza guztiak baztertzeko.

Hala denean, agintari judizialak heriotzari buruzko eginbideen izapideak egin eta agindua eman baino lehen, Fiskaltzak horren aldeko txostena eman behar du, eta, agintari judizial militarren kasuan, kontu-hartzaileak eman behar du txostena; agintaria atzerrikoa bada, espediente egokiaren izapidetza egingo da, inskripzioa egin ahal izateko.

Espedientean edo eginbideetan inguruabarrak zehazteko, kontuan hartuko dira berreratze-kasuetarako agindutako frogak.

Artículo 279

El fallecimiento en las condiciones a que se refiere el artículo anterior, ocurrido en campaña o en cautividad, se inscribirá en virtud de expediente instruido y resuelto conforme a esta legislación, sin ulterior recurso en vía gubernativa, por la Autoridad judicial militar de la Región, Zona o Departamento correspondiente y, en su defecto, por la de la Primera o la Central, y siempre previo informe favorable del Auditor.

Artículo 280

En la inscripción de defunción constarán especialmente:

1. Las menciones de identidad del fallecido.
2. Hora, fecha y lugar del fallecimiento.
3. Número que se asigna en el legajo al parte o comprobación.

Artículo 281

Las menciones de identidad desconocidas se suplirán por los nombres o apodos, señales o defectos de conformación, edad aparente o cualquier otro dato identificante; los vestidos, papeles u otros objetos encontrados con el difunto serán reseñados por diligencia en folio suelto.

De no poderse expresar la hora, fecha y lugar del fallecimiento se indicarán los límites máximo y mínimo del

279. artikulua

Aurreko artikulua aipatu baldintzetan, heriotza gertatu bada kanpainan edo gatibualdian, heriotza hori espedientearen bidez inskribatuko da. Espediente horren gaineko izapideak eta ebazpena lege honen arabera burutuko dira, gobernu-bidean geroko errekursorik izan gabe; espedientearen gaineko ardura izango du kasuan kasuko eskualde, gune edo saileko agintaritzak judizial militarrek, eta, hori izan ezean, lehenengokoak edo Zentralak, eta beti aurretiaz kontu-hartzaileak horren aldeko txostena emango du.

280. artikulua

Heriotza-inskripzioan bereziki jasoko dira:

1. Hildakoaren nortasun-aipamenak.
2. Heriotzaren ordua, data eta lekua.
3. Paper-sortan parteari edo egiaztapenari jarritako zenbakia.

281. artikulua

Nortasun-aipamen ezezagunen ordeztarriko dira izenak edo izengoitiak, egiaztapen-zeinuak edo -akatsak, itxurazko adina edo identifikaziorako balio duten beste datuetatik edozein; hildakoarekin batera aurkitutako arropak, paperak edo bestelako objektuak eginbidearen bidez aipatuko dira folio bakartuan.

Heriotzaren ordua, data eta lekua ezin badira adierazi, heriotza zein alditan gertatu eta aldi horren gehieneko

tiempo en que ocurrió y el primer lugar conocido de situación del cadáver.

La inscripción será completada y, en su caso conocido el lugar de defunción, trasladada al Registro competente, en virtud de sentencia, expediente gubernativo u orden de la autoridad judicial. Los antecedentes se pasarán al Ministerio fiscal para que promueva el expediente oportuno, si no hay en curso procedimiento o diligencias suficientes a este fin.

Artículo 282

La inhumación se ajustará a las Leyes y Reglamentos respecto al tiempo, lugar y demás formalidades.

La licencia se extenderá inmediatamente de la inscripción por el Encargado o por la Autoridad judicial que instruya las diligencias oportunas y servirá para la inhumación en cualquier lugar, al que no hará mención.

Justificado el fallecimiento, la licencia también podrá expedirse por el Encargado del lugar en que ha de llevarse a efecto la inhumación, si es distinto a aquel que haya de extender la inscripción y antes o después de extendida.

En la inscripción o por nota marginal se hará referencia al lugar de enterramiento, si consta en la declaración de defunción o en certificación de Autoridad o funcionario a cuyo cargo está el cementerio; esta certificación es título suficiente para modificar o rectificar la referencia.

eta gutxieneko mugak, eta hildakoaren kokapenari dagokion lehenengo leku ezaguna aipatuko dira.

Inskripzioa osatu egingo da, eta, hala denean, heriotza-lekua jakinda, Erregistro eskudunera lekualdatuko da, epaia-
ren, gobernu-espeditarean edo agintari judizialak emandako aginduaren bidez. Aurrekariak Fiskaltzari emango zaizkio, horrek espediente egokia susta dezan, helburu horretarako prozedurarik edo behar besteko eginbiderik ez badago aribidean.

282. artikulua

Hobiratze lege eta erregelamenduekin bat etorriko da, denborari, lekuari eta gainerako formalitateei dagokienez.

Baimena emango da arduradunak inskripzioa egin edo agintari judizialak eginbide egokien izapidetza bukatu eta berehalakoan; baimen hori dela medio, edozein lekutan egin ahal izango da hobiratzea, leku hori aipatu gabe.

Heriotza egiaztatu ondoren, eta inskripzioa egin aurretik edo ondoren ere, hobiratzea zein tokitan gauzatu behar eta toki horretako arduradunak ere baimena eman ahal izango du, arduradun hori eta inskripzioa egin behar duena desberdinak badira.

Inskripzioan edo orri-bazterreko oharraren bidez, ehorzketa-lekua aipatuko da, hori agertzen bada heriotza-adierazpenean edota agintaritzak nahiz hilerriaren gaineko ardura duen funtzionarioak emandako ziurtagirian; ziurtagiri hori behar besteko titulua da aipamena aldarazi edo zuzentzeko.

CAPÍTULO IV
De la Sección de tutelas
y representaciones legales

SECCIÓN I
De las inscripciones

Artículo 283

Son objeto de inscripción los cargos tutelares o de la curatela, sus modificaciones y las medidas judiciales sobre guarda o administración, o sobre vigilancia o control de aquellos cargos.

También son inscribibles los cargos de Albacea, Depositario, Administrador e Interventor judiciales, Síndico o cualesquiera otros representantes que tengan nombramiento especial y asuman la administración y guarda de un patrimonio.

Artículo 284

No estarán sujetos a inscripción:

1. La patria potestad y sus modificaciones, sin perjuicio de lo dispuesto para la Sección Primera del Registro Civil y de la inscripción de Administradores nombrados para los menores.

2. Las representaciones de personas jurídicas o de su patrimonio en liquidación.

3. Los apoderamientos voluntarios.

Artículo 285

Tanto el domicilio como el lugar donde estuvieren dentro o fuera de Es-

IV. KAPITULUA
Tutoretzen eta legezko
ordezkaritzen atala

I. ATALA
Inskripzioak

283. artikulua

Inskribatzeko modukoak dira tutoretza- edo kuradoretza-karguak, horien aldarazpenak eta kargu horien gaineko zaintza nahiz administrazioari buruzko edo jagoletza nahiz kontrolari buruzko neurri judizialak.

Inskribatzeko modukoak dira, berebat, albacea, gordailuzain, administratzaile eta kontu-hartzaile judizial, sindiko edo bestelako ordezkarietatik edozeini buruzko karguak, horiek izendapen berezia badute, eta ondare zehatz bat administratu eta zaintzeko arduraren bereganatzen badute.

284. artikulua

Ez dira inskribatu behar:

1. Guraso-ahala eta horren aldarazpenak, dela Erregistro Zibileko lehenengo atalaren inguruan zehaztutakoari kalterik egin gabe, dela adingabeentzat izendatutako administratzaileen inskripzioari kalterik egin gabe.

2. Pertsona juridikoen ordezkarietak edo pertsona horiek likidazioan duten ondareari buruzko ordezkarietak.

3. Borondatezko ahalordeak.

285. artikulua

Ondasun gehieneko egoitza eta lekua, Espainia barruan egon zein kan-

paña, la mayor parte de los bienes se acredita a efectos de decidir el Registro competente, por declaración del gestor o representante legal o por cualquier otro medio.

Artículo 286

Los cargos se inscriben por testimonio judicial u otro documento público suficiente que acredite la toma de posesión.

La inscripción del administrador del caudal relicto requiere acreditar la aceptación del cargo, en virtud de documento con firma autenticada; no se requiere acreditarla si el mismo nombrado promueve el asiento, lo cual se hará constar entonces en él con su firma.

Artículo 287

El folio registral de cada tutela, curatela o representación legal se abrirá con la inscripción primeramente obligatoria relativa a la misma; respecto de las posteriores se aplicará lo establecido sobre inscripciones marginales.

El Encargado del Registro, inmediatamente de practicada la inscripción principal, determinará el número de páginas que ha de comprender el folio, haciéndolo así constar al pie de la última asignada por diligencia en la que se referirá a la inscripción principal.

El organismo tutelar para varios hermanos será objeto de inscripciones únicas.

poan egon, kudeatzaileak edo legezko ordezkariak egindako adierazpenaren bidez nahiz beste edozein bidetatik egiaztatzen dira, Erregistro eskuduna zein den erabakitzeko.

286. artikulua

Karguak inskribatzen dira, behar besteko lekukotza judizialaren bidez edo beste agiri publiko baten bidez, agiri horrek karguaz jabetzea egiaztatzen badu.

Kausatzaileak utzitako ondasunen administratzailea inskribatzeko, nahitaezkoa da karguaren onarpena egiaztatzea, kautotutako sinadura duen agiriaren bidez; ez da beharrezkoa hori egiaztatzea, izendatutakoak berak idazkuna sustatzen badu, hori bere sinadurarekin jasoko baita idazkunean.

287. artikulua

Tutoretza, kuradoretza edo legezko ordezkari buruz folioa irekiko da Erregistroan, harekin zerikusia duten nahitaezko inskripzioetatik lehenengo egitean; ostekoei dagokienez, orri-bazterreko inskripzioei buruz ezarritakoa aplikatuko da.

Erregistroko arduradunak, inskripzio nagusia egin eta batera, folioak izan beharreko orrialde-kopurua zehaztuko du, eta eginbidearen bidez hori jasoko du azken orrialdearen oinean, horretan inskripzio nagusia aipatuta.

Inskripzio bakarrak egingo dira zenbait neba-arrebarentzako babes-erakundeari buruz.

La inscripción de representación legal del ausente se practicará en el folio abierto para el defensor, si hubiera precedido la de este cargo.

Artículo 288

En la primera inscripción se expresarán las menciones de identidad del pupilo o de los que, con anterioridad a la constitución de la representación, eran titulares de los patrimonios a ella sujetos. En los asientos marginales se expresarán sólo los nombres y apellidos.

En la primera o a su margen se hará referencia a la de su nacimiento y a la de incapacitación, declaración de ausencia, muerte u otro hecho que motivó la representación legal.

También, por nota marginal se hará referencia, en su día, a la inscripción del hecho que implique la extinción de la tutela, curatela o representación, cuando se practique en distinto folio registral.

Artículo 289

En la inscripción se expresará especialmente:

1. La naturaleza de los cargos, y si la representación incumbe a varias personas y en qué medida.
2. Parentesco con el tutelado o representado, cuando sea la razón del nombramiento.
3. Facultades de representación conferidas en el título de nombramiento.

Absentearen legezko ordezkari-tza inskribatuko da, defendatzailearentzat irekita dagoen folioan, aurretiaz kargu hori inskribatuta egon bada.

288. artikulua

Lehenengo inskripzioan adieraziko dira babespekoaren nortasun-aipamenak, eta, era berean, ordezkari-tza eratu baino lehenago, horren menpe jarritako ondareen titular zirenen nortasun-aipamenak. Orri-bazterreko idazkunetan izen-abizenak bakarrik adieraziko dira.

Lehenengo inskripzioan edo horren orri-bazterrean aipatuko dira haren jaiotza nahiz ezgai-ketari buruzko inskripzioa, absentzia-adierazpena, heriotza-adierazpena edo legezko ordezkari-tza eragin duen bestelako egitateak.

Halaber, orri-bazterreko oharraren bidez aipatuko da, garaia denean, tutoretzaren, kuradoretzaren edo ordezkari-tzaren azkentzea dakarren egitateari buruzko inskripzioa, hori Erregistroko beste folio batean egiten denean.

289. artikulua

Inskripzioan bereziki adieraziko da:

1. Karguen izaera, eta ordezkari-tza pertsona bat baino gehiagoren ardura den eta zein neurritan.
2. Tutoretzapean edo ordezkari-tzapean dagoenarekin izandako ahaidetasuna, hori izendapena egiteko arrazoia bada.
3. Izendapen-tituluan emandako ordezkari-tza-ahalmenak eta era berean

to y las limitaciones igualmente impuestas, si no constan en la inscripción del hecho que motiva la representación legal.

4. Fecha de toma de posesión.

En la inscripción de modificación se expresará el alcance de ésta.

SECCIÓN II

De las anotaciones

Artículo 290

Se hará constar por anotación:

1. La existencia del inventario o descripciones de bienes formados por el tutor o defensor del desaparecido y la de inventarios, descripción de bienes, escrituras de transmisiones y gravámenes o de partición o adjudicación y actas de protocolización a que se refiere el artículo 198 del Código Civil.

2. La presentación o modificación de la garantía o fianza exigida el tutor.

3. La declaración, en su caso, de que se han compensado frutos por alimentos.

4. La rendición de cuentas por el tutor.

Las cuentas serán depositadas en la oficina del Registro y con ellas se formarán legajos especiales ordenados por organismos tutelares, que se conservarán durante ciento cincuenta años.

ezarritako mugapenak, horiek jasotzen ez badira legezko ordezkariak eragin duen egitateari buruzko inskripzioan.

4. Karguaz jabetzeko data.

Aldarazpenari buruzko inskripzioan haren norainokoa adieraziko da.

II. ATALA

Idatzoharrak

290. artikulua

Idatzoharraren bidez jasoko da:

1. Inbentarioaren izatea edo desgertuaren tutoreak nahiz defendatzaileak eraturako ondasunen deskripzioak, eta inbentarioen izatea, ondasunen deskripzioak, eskualdaketa eta kargei buruzko eskriturak, edo banaketa nahiz adjudikazioei buruzkoak, eta Kode Zibilaren 198. artikulua aipaturako protokolatze-aktak.

2. Tutoreari eskaturako berme edo fidantzaren aurkezpena edo aldarazpena.

3. Fruituak mantenuaren truk konpentsatu direla jasotzen duen adierazpena.

4. Tutoreak emandako kontu-arrazoiak.

Kontuok Erregistroko bulegoan gordailatuko dira, eta horiekin paper-sorta bereziak eraturako dira, babes-erakundeen arabera antolatuta; paper-sortok ehun eta berrogeita hamar urtetan iraunaraziko dira.

Artículo 291

Están obligados a promoverlas sin demora:

1. El juez.
2. El tutor o curador.
3. El defensor del desaparecido o representante legal de ausente.
4. El Ministerio Fiscal.

Las autoridades y funcionarios a quienes consten, por razón de sus cargos, los hechos no anotados, están obligados a comunicarlos al Ministerio Fiscal.

Artículo 292

Estas anotaciones pueden practicarse en virtud de testimonio de la resolución judicial oportuna o de parte enviado oficialmente por el funcionario autorizante.

En ellas constarán especialmente:

1. En sus casos, las menciones de identidad de los comparecientes y de los otorgantes y lugar, fecha y funcionario autorizante.
2. En las de inventarios y particiones, el valor total que en el título se asigne a los bienes.
3. En las de transmisiones y gravámenes, el auto de concesión de la licencia judicial, y
4. En la de prestación de fianza, la clase de bienes en que se haya constituido y, si es personal, las menciones de identidad de los fiadores.

291. artikulua

Luzatu gabe inskripzioa sustatzera behartuta daude:

1. Epailea.
2. Tutorea edo kuradorea.
3. Desagertuaren defendatzailea edo absentearen legezko ordezkaria.
4. Fiskaltza.

Agintari eta funtzionarioek, euren karguen ondorioz, idatzoharraren bidez jaso ez diren egitateen berri badute, behartuta daude horiek Fiskaltzari komunikatzera.

292. artikulua

Idatzohar horiek lekukotzaren bidez egin daitezke, lekukotza horrek jasotzen badu ebazpen judizial egokia edo funtzionario eskuesleak modu ofizialean bidalitako parteak.

Idatzohar horietan bereziki jasoko dira:

1. Kasuan-kasuan, agertzaile eta egilesleen nortasun-aipamenak, lekua, data eta funtzionario eskueslea.
2. Inbentario eta banaketei buruzko idatzoharretan, ondasunei tituluan emandako balio osoa.
3. Eskualdaketa eta kargei buruzko idatzoharretan, baimen judiziala ematen duen autoa, eta
4. Fidantza emateko idatzoharrean, fidantza hori zein ondasun-motatan eratu den, eta, pertsonala izanez gero, fidatzaileen nortasun-aipamenak.

TÍTULO VI
DE LA RECTIFICACIÓN Y
OTROS PROCEDIMIENTOS

CAPÍTULO I
De la rectificación

SECCIÓN I
Reglas especiales

Artículo 293

Las inscripciones no pueden rectificarse en virtud de sentencia recaída en proceso penal; no obstante, en cuanto sean contradictorias con los hechos que la sentencia declara probados, serán rectificadas mediante expediente gubernativo.

Artículo 294

Para rectificar en la inscripción de nacimiento la indicación del sexo se investigará:

1. Si la identidad queda establecida por las demás circunstancias de la inscripción.
2. Si no existe o ha existido otra persona con tales circunstancias y del sexo indicado.
3. Si la persona a que afecta la rectificación no está correctamente inscrita en otro asiento, y
4. El sexo del inscrito por dictamen del Médico del Registro Civil o su sustituto.

Artículo 295

Procede la rectificación de errores provenientes de documento público

VI. TITULUA
ZUZENKETA ETA
BESTELAKO PROZEDURAK

I. KAPITULUA
Zuzenketa

I. ATALA
Erregela bereziak

293. artikulua

Inskripzioak ezin dira zuzendu prozesu penalean emandako epaiaren bidez; hala ere, inskripzio horiek epaiak frogatutzat adierazi dituen egitateekin bat ez badatoz, gobernu-espedientearen bidez zuzenduko dira.

294. artikulua

Jaiotza-inskripzioan sexuaren aipamena zuzentzeko, ikertuko da:

1. Inskripzioaren gainerako inguruabarrek nortasuna ezartzen duten.
2. Beste pertsonarik dagoen edo egon den halako inguruabarrekin eta aipatu sexuarekin.
3. Zuzenketak ukitzen duen pertsona beste idazkun batean behar bezala inskribatuta ez dagoen, eta
4. Inskribatutakoaren sexua, Erregistro Zibileko medikuak edo horren ordezkioak emandako irizpenaren bidez.

295. artikulua

Bidezkoa da akatsak zuzentzea, baldin eta akatsok agiri publiko naziona-

nacional o extranjero, o eclesiástico, cuando el original o matriz haya sido, a su vez, rectificado por el procedimiento legal correspondiente.

Las actas simples o duplicadas establecidas en la legislación del Registro, para en su virtud, practicar inscripciones, se rectificarán por los procedimientos fijados para los correspondientes asientos.

SECCIÓN II

De los expedientes para completar o suprimir circunstancias y asientos

Artículo 296

Basta expediente gubernativo para completar los datos y circunstancias de inscripciones firmadas:

1. Cuando la inscripción del hecho es posible en virtud de expediente.
2. Cuando se trata de omisiones de menciones o indicaciones que, de estar equivocadas, podrían rectificarse por expediente gubernativo.

Las reglas de uno u otro expediente rigen también en el que tiene por fin completar las inscripciones.

No se requiere expediente si la inscripción complementaria puede practicarse en virtud de declaración en los casos, tiempo y forma señalados en la Ley o por documento auténtico.

Artículo 297

Por expediente gubernativo sólo pueden suprimirse:

letik edo atzerriko nahiz Elizako agiri publikotik badatoz, eta jatorrizkoa edo matrizea, aldi berean, legezko prozedura egokiaren bidez zuzendu bada.

Erregistroko legeriak akta soil edo bikoiztu zehatz batzuk onartzen ditu, akton bidez inskripzioak egin daitezzen; akta horiek zuzentzeko, kasuan kasuko idazkunetarako finkatuta dauden prozedurak erabiliko dira.

II. ATALA

Inguruabarrak eta idazkunak osatu edo ezabatzeko espedienteak

296. artikulua

Gobernu-espedientea nahikoa da, sinatutako inskripzioen datuak eta inguruabarrak osatzeko:

1. Egitatearen inskripzioa espedientearen bidez egin daitekeenean.
2. Adierazpenak edo aipamenak jaso ez direnean, horiek okerrekoak izanez gero, gobernu-espedientearen bidez zuzen badaitezke.

Espediente baten zein bestearen erregelak aplikatzen dira, orobat, inskripzioak osatzeko helburua duen espedienteen.

Ez da espedienterik behar, baldin eta inskripzio osagarria adierazpenaren bidez egin badaiteke, legeak edo agiri kautoak zehaztutako kasuetan, denboran eta forman.

297. artikulua

Gobernu-espedientearen bidez hurrengoak bakarrik ezaba daitezke:

1. Las circunstancias cuya constancia no está prevista legal o reglamentariamente.

2. Los asientos sobre hechos que no constituyen el objeto del Registro.

3. Los asientos o circunstancias cuya práctica se haya basado, de modo evidente, según el propio asiento, en título manifiestamente ilegal.

4. Las adiciones, apostillas, interlineados, raspaduras y enmiendas nulos; el asiento se considera parcialmente destruido en cuantos datos y circunstancias resulten ilegibles en el expediente.

SECCIÓN III

De los defectos y faltas formales y de su corrección

Artículo 298

Son defectos formales de los asientos:

1. Su extensión en Registro, libro o folio distinto del que corresponde. La competencia para el expediente viene determinada por el Registro en que se practicaron y la resolución ordenará el traslado del asiento o asientos, los cuales deben ser cancelados.

2. La actuación en los asientos o en las diligencias previas de funcionario incompatible o de quien, sin estar legítimamente encargado de funciones en el Registro, las ejerce públicamente.

1. Inguruabarrak, horiek jasotzea nahitaezkoa ez bada legearen edo erregelamenduaren aginduz.

2. Egitatei buruzko idazkunak, egitate horiek Erregistroko gaiak ez badira.

3. Idazkunak eta inguruabarrak, baldin eta horien egitea, idazkunaren araber, nabariro zilegi ez den tituluan oinarritu bada.

4. Eransketa, argibide, lerroarteko, urradura eta zuzenketa deusezak; idazkuna zati batez suntsituzat joko da, espedientean irakurri ezin diren datu eta inguruabarrei dagokienez.

III. ATALA

Akats eta hutsegite formalak, eta horien zuzenketa

298. artikulua

Idazkunen akats formalak dira:

1. Idazkunak, horiei dagokien erregistro, liburu edo folioan barik, beste erregistro, liburu edo folio batean egitea. Espedientearen gaineko eskumena izango du idazkunok zein erregistrotan egin eta erregistro horrek; ebazpenak idazkunaren edo idazkunen kopia egitea aginduko du, eta idazkunok ezereztu egin beharko dira.

2. Idazkunetan edo aurretiazko eginbideetan funtzionario bateraezinak jardutea, edo, Erregistroan eginkizunen gaineko ardura legitimoa izan ez arren, haiek jendaurrean burutzea.

3. El practicarlos fuera del libro correspondiente o formado sin las caudelas o el visado reglamentario; o el no extenderlos por orden sucesivo o en los espacios oportunos.

4. La omisión o expresión inexacta de la declaración, declarante y testigos, o del documento en virtud del cual se practican.

5. La omisión de la fecha de las inscripciones, de los nombres de quienes las autorizan o de las firmas legalmente exigidas.

6. El uso de abreviaturas o guarismos no permitidos, el empleo de idioma distinto del castellano, la difícil legibilidad de caracteres, así como la defectuosa expresión de conceptos cuando por el contexto de la inscripción o de otras no hay duda sobre su contenido. Estos asientos se entenderán destruidos en la medida en que resulten ilegibles.

Artículo 299

Para acreditar debidamente los hechos de que los asientos dan fe se requiere presentar títulos suficientes para la inscripción o justificar cumplidamente, mediante los propios asientos defectuosos, los documentos archivados u otros medios que se practicaron en virtud de título adecuado.

Se presumen acreditados:

1. Los extendidos en libros o registros que no corresponda.

2. En caso de intervención de funcionario ilegítimo, si se acredita que

3. Idazkunak liburu egokitik kanpo egitea edo arretarik edo arauzko ikus-onespenik gabe eratutako liburuan; edota idazkunok elkarren segidan edo tarte egokietan ez egitea.

4. Adierazpena, adierazlea, lekukoak edo idazkunak zein agiriren ondorioz egin eta agiri hori ez aipatzea edo okerretara aipatzea.

5. Inskripzioen data, inskripzioak baimendu dituztenen izenak edo legez nahitaezko diren sinadurak ez agertzea.

6. Onartu gabeko laburdurak edo zifrak erabiltzea, gaztelaniaz besteko hizkuntza bat erabiltzea, karaktereak irakurtzeko zailak izatea eta kontzeptuak gaizki adieraztea, baldin eta horien edukiari buruz zalantzarik ez badago inskripzio zehatzaren edo beste batzuen testuinguruaren ondorioz. Idazkun horiek suntsituzat joko dira irakurtezinak diren neurrian.

299. artikulua

Idazkunek egitateen fede eman eta egitate horiek behar bezala egiaztatzeko, nahitaezkoa da inskripzioa egiteko behar bestekoak diren tituluak aurkeztea, edo idazkun akastun horien bitartez bete-betean egiaztatzea artxibatutako agiriak edo titulu egokiaren bidez erabiltzeko bestelako baliabideak.

Egitateak egiaztatuta daudela uste da:

1. Egoki ez diren liburu edo erre-gistroetan jasota daudenean.

2. Legitimoa ez den funtzionarioak esku hartzen duenean, eginkizuna arre-

ejerció la función con diligencia y pericia ordinarias.

3. En las demás faltas, siempre que, al menos, se trate de inscripción firmada, extendida en libro, por orden sucesivo, con la debida constancia de la declaración o documentos auténticos, en virtud del cual se practica.

El anuncio a interesados en los tres casos anteriores puede ser general.

Artículo 300

La Dirección General puede dispensar de la traducción al castellano, que, sin embargo, deberá hacerse si hay petición de interesado; las certificaciones se expedirán siempre traducidas. En estos casos, la traducción se realizará sin expediente por el Encargado o persona con título facultativo idóneo, dando vista al Ministerio fiscal.

La dispensa será objeto de inscripción, como las resoluciones de estos expedientes.

Artículo 301

Basta expediente gubernativo para cancelar la inscripción practicada sobre hecho ya inscrito con las mismas circunstancias; en la cancelación se hará referencia al antiguo asiento al que serán trasladados los asientos marginales del cancelado.

Si una inscripción contradice a otra en los hechos de que ambas dan fe, la rectificación sólo puede obtenerse en juicio ordinario cuya anotación en am-

ta eta trebetasun arruntekin burutu badu.

3. Gainerako hutsegiteetan, baldin eta, behintzat, sinatutako inskripzioa liburuan eta elkarren segidako hurrenkeran egin bada, adierazpena edo agiri kautoak behar bezala agerrarazita, inskripzioa horien bidez eginik.

Aurreko hiru kasuetan, interesdunei horien berri eman dakieke orokorrean.

300. artikulua

Zuzendaritza Nagusiak adieraz dezake gaztelaniazko itzulpena ez dela beharrezkoa, baina itzulpen hori egin behar da, interesdunak hala eskatzen badu; ziurtagiriak beti luzatuko dira itzulita. Kasu horietan, itzulpena egingo du, espedienterik gabe, arduradunak edo aditu-titulu egokia duen funtzionarioak, itzulpena Fiskaltzak ikusita.

Beharrezko ez izate hori inskribatzeko modukoa izango da, espediente horien ebazpenak bezala.

301. artikulua

Gobernu-espedientea nahikoa da, jadanik inguruabar berberekin inskribatuta dagoen egitateari buruz inskripzioa ezerezteko; ezerezte-idazkunean idazkun zaharra aipatuko da, eta idazkun horretara kopiatuko dira ezerezte-tako inskripzioaren orri-bazterreko idazkunak.

Inskripzio bat beste batekin bat ez badator bi-biok egitateen fede eman eta egitate horiei dagokienez, zuzenke-ta epaiketa arruntean bakarrik lortu

bos folios será solicitada por el Ministerio fiscal.

Artículo 302

Las resoluciones de los expedientes se limitarán a declarar los defectos formales de los asientos o las faltas en el modo de llevar los libros y a corregirlos, en su caso, sin determinar el alcance de la infracción en orden a la eficacia de los asientos.

Artículo 303

Son faltas en el modo de llevar los libros que no afectan directamente a inscripciones:

1. Los defectos de formato de los libros.

2. Las cometidas en la numeración o en la indicación alfabética de asientos o páginas. Si los defectos son numerosos se acordará numerar nuevamente en sentido inverso, con distinta tinta y sin borrar la numeración anterior; la numeración inversa de inscripciones no se practicará hasta que se extienda la diligencia de cierre.

En los expedientes promovidos para corregirlas basta el anuncio general a interesados.

Artículo 304

No se requiere expediente para corregir:

1. Cualquier infracción en el modo de llevar los libros, incluso en la dili-

ahal izango da, eta horren idatzoharra bi folioetan egingo da, Fiskaltzak hala eskatuta.

302. artikulua

Espedienteen gaineko ebazpenek idazkunen akats formalak edo liburuak egiteko moduan egindako hutsegiteak bakarrik adierazi eta zuzenduko dituzte, hala denean, arau-haustearen norainokoa zehaztu gabe, idazkunen eragin-garritasunari dagokionez.

303. artikulua

Liburuak egiteko moduan hutsegiteak gertatzen dira, eta hutsegite horiek ez dute zuzeneko eraginik inskripzioen gain:

1. Liburuen formatu-akatsak badira.

2. Idazkunak edo orrialdeak zenbatzean edo modu alfabetikoan aipatzean burutu badira. Akatsak asko izanez gero, berriro alderantziz zenbatzea erabakiko da, tinta ezberdinez eta aurreko zenbaketa ezabatu gabe; inskripzioen alderantzizko zenbaketa ez da gauzatu-ko, itxiera-eginbidea gauzatu arte.

Akatsak zuzentzeko espedienteak sustatzen direnean, nahikoa da interesdunei iragarki orokorra egitea.

304. artikulua

Ez da espedienterik behar hurrengoak zuzentzeko:

1. Liburuak egiteko moduan gertatutako arau-hausteetatik edozein, ire-

gencia de apertura, cuando no se han practicado en ellos inscripciones.

2. La omisión de la diligencia de cierre o índices o cualquier infracción cometida en una u otros.

SECCIÓN IV

De la inscripción de resoluciones

Artículo 305

Las resoluciones denegatorias no serán objeto de inscripción, pero sí las que declaren la existencia de defectos formales de los asientos o de faltas en el modo de llevar los libros que afectan directamente a inscripciones firmadas, las de rectificación y corrección y las que completan una inscripción.

Artículo 306

La inscripción se practicará en el folio registral a que se refiere la resolución, y determinará las expresiones o conceptos que se cancelan y las que las sustituyen, el defecto o falta a que afectan o las circunstancias que se agregan, con referencia a la inscripción rectificada, corregida, completada o afectada.

Artículo 307

En la resolución puede ordenarse, para mayor claridad, la cancelación del antiguo asiento con referencia a otro nuevo que, con las circunstancias a que se refiere el artículo anterior, lo comprenda y sustituya; tratándose de ins-

kiera-eginbidean jazotzen denean ere, liburuotan inskripziorik egin ez bada.

2. Itxiera-eginbidea edo aurkibideak jaso ez izana, edo batean zein bestetan burututako arau-hausteetatik edozein.

IV. ATALA

Ebazpenen inskripzioa

305. artikulua

Ebazpen ukatzaileak ez dira inskribatuko, bai, ordea, idazkunetan akats formalak daudela edo liburuak egiteko moduan hutsegiteak daudela adierazten dutenak, ebazpenok eragina badute sinatutako inskripzioen gain; halaber, inskribatuko dira, zuzenketa-ebazpenak eta inskripzioa osatzen dutenak.

306. artikulua

Inskripzioa egingo da ebazpenak aipatutako erregistro-folioan, eta inskripzio horrek zehaztuko ditu ezereztan diren adierazpenak edo kontzeptuak eta horien ordeztartzen direnak, ebazpenok zein akats edo hutsegiteren gain duten eragina edo zein inguruabar gaineratzen duten, zuzendu, osatu edo ukitutako inskripzioari erreferentzia eginez.

307. artikulua

Argitasunaren mesederako, ebazpenan agin daiteke idazkun zaharraren ezerezte, idazkun berri bati erreferentzia eginez; berri horrek, aurreko artikulua aipatu inguruabarrekin batera, zaharra barnean hartu eta beraren or-

cripciones principales, se trasladará todo al folio registral.

Se ordenará igualmente el traslado de los asientos practicados sin garantías de conservación y los difícilmente legibles o en peligro de destrucción o ilegibilidad.

Si el traslado se refiere a numerosos asientos, podrá ordenarse la apertura de libros especiales; la cancelación se hará al margen de la diligencia de apertura del libro que pierda vigencia o, en su caso, al margen del primer folio afectado; se cruzarán las hojas con tinta de distinto color y se pondrá nota de referencia a la cancelación y a la nueva inscripción al margen de cada folio registral.

Toda inscripción principal trasladada hará referencia a la antigua.

Artículo 308

Se ordenará el cierre de los libros con defectos insubsanables; si contuvieren asientos vigentes se tomarán las medidas oportunas a su conservación, encuadernándolos, si fuere conveniente.

Artículo 309

Cuando un mismo defecto afecte a varios asientos de un folio registral, basta uno solo de corrección o declaración con referencia a todos ellos.

Si afecta a varios folios, el órgano que dictó la resolución puede ordenar

dez jarriko da. Inskripzio nagusiei dagokienez, dena Erregistroko foliora kopiatuko da.

Era berean aginduko da iraunarazte-bermerik ez duten idazkunak, nekez irakur daitezkeenak eta suntsipenahiz irakurtezintasun-arriskuan daudenak kopiatzea.

Kopiak idazkun asko ukitzen baditu, liburu bereziak irekitzea agindu ahal izango da; ezereztea liburu irekitzeko eginbidearen orri-bazterrean egingo da, liburu horrek indarra galtzen badu, edo, hala denean, ukitutako lehenengo folioaren orri-bazterrean; orriak kolore ezberdineko tintaz gurutzatuko dira, eta ezerezteari eta inskripzio berriari erreferentzia-oharra jarriko zaie Erregistroko folio bakoitzaren orri-bazterrean.

Kopiatutako inskripzio nagusi orok erreferentzia egingo dio inskripzio zaharrari.

308. artikulua

Liburuen itxiera aginduko da, liburuok akats konponezinak dituztenean; liburuetan indarrean dirauten idazkunak izanez gero, horiek iraunarazteko neurri egokiak hartuko dira, halakoak koadernatuz, komenigarri izanez gero.

309. artikulua

Akats berberak eragina badu Erregistroko folio bereko zenbait idazkunen gain, nahikoa da zuzenketarako edo adierazpenerako idazkun bat bakarrik egitea, haiek guztiak aipatuta.

Akatsak zenbait folioren gain eragina izanez gero, ebazpena eman duen

la inscripción de corrección o declaración con referencia a todos los asientos afectados, al margen de la diligencia de apertura y, si ésta faltare o se abrieren nuevos libros, al margen de la que se ordene extender, poniendo referencia en los folios afectados o en aquellos en que se extendieron los trasladados. Igualmente se procederá con las faltas en el modo de llevar los libros que no afecten directamente a inscripciones; pero si el asiento se extendiere al margen de la diligencia de apertura no se pondrá nota en cada folio.

Artículo 310

Rectificada una inscripción, se rectificarán, también por nota, los demás asientos que, fundados en la misma, estuvieren igualmente equivocados o fueren incompletos.

CAPÍTULO II

Del expediente para la inscripción de nacimiento fuera de plazo

Artículo 311

En la solicitud para la inscripción fuera de plazo se expresará que, realizada la investigación oportuna, no se ha encontrado inscripción de nacimiento o se presentará la correspondiente certificación negativa.

Artículo 312

En el expediente se investigará por las pruebas presentadas o de oficio:

organoak zuzenketa- edo adierazpen-
-inskripzioa agin dezake, ukitutako idazkun guztiak aipatuta, irekiera-eginbidearen orri-bazterrean, eta, eginbide hori ez badago edo liburu berriak irekitzen badira, eginbidea burutzeko agindu eta beraren orri-bazterrean; betiere, erreferentzia jarriko da ukitutako folioetan, eta kopiatutakoak zein foliotan jaso eta horietan. Gauza bera egingo da liburuak egiteko moduan hutsegiteak daudenean, hutsegite horiek inskripzioen gain zuzeneko eragina ez badute; hala ere, idazkuna irekiera-eginbidearen orri-bazterrean egiten bada, folio bakoitzean ez da oharririk jarriko.

310. artikulua

Inskripzioa zuzendu ondoren, oharra-
ren bidez zuzenduko dira, orobat, inskripzio berean oinarritutako gainerako idazkunak, horiek ere erratuta badaude edo osagabeak badira.

II. KAPITULUA

Epez kanpoko jaiotza inskribatzeko espedienteak

311. artikulua

Epez kanpoko inskripzioa egiteko eskaeran adieraziko da, ikerketa egokia egin eta gero, jaiotza-inskripziorik ez dela aurkitu; bestela, kasuan kasuko ezezko ziurtagiria aurkeztuko da.

312. artikulua

Espedientean, aurkeztutako frogen bidez edo ofizioz ikertuko da:

1. Que no hay previa inscripción de nacimiento.

2. La existencia de identidad del nacido.

3. Cuantas circunstancias deban constar en la inscripción.

Artículo 313

En caso de duda sobre el sexo o edad del nacido emitirá dictamen el Médico del Registro Civil o su sustituto.

Para determinar el año y población de nacimiento basta la información de dos personas a quienes les conste de ciencia propia o por notoriedad; pero para precisar más el tiempo y lugar acreditados por notoriedad se procurará que concurran otras pruebas.

Artículo 314

En cuanto a la filiación se estará a lo legalmente dispuesto.

Artículo 315

Siempre que no produzca dilación superior a treinta días, deberán incorporarse al expediente:

1. El parte de alumbramiento, suscrito por Médico, Comadrona o Ayúdame Técnico Sanitario o, en su defecto, la partida de bautismo o análoga de la religión correspondiente.

2. Certificado del matrimonio de los padres y, no siendo posible, la partida eclesiástica.

1. Aurretiazko jaiotza-inskripzioirik ez izatea.

2. Jaioaren nortasuna bera izatea.

3. Inskripzioan jaso beharreko inguruabar guztiak.

313. artikulua

Jaioaren sexu edo adinari buruz zalantzak izanez gero, Erregistro Zibileko medikuak edo beraren ordezkioak irizpena emango du.

Jaiotzaren urtea eta herria zehazteko, nahikoa da bi pertsonak emandako informazioa, pertsona horiek eurenez edo nabaritasunaren ondorioz haien berri badute; hala ere, egiaztatutako denbora eta lekua gehiago zehaztu daitezen, beste froga batzuk aurkezteko ahaleginak egingo dira.

314. artikulua

Seme-alabatasunaren kasuan, legeak xedatutakoa hartuko da kontuan.

315. artikulua

Hogeita hamar egunetik gorako luzapena gertatzen ez bada, espedientera bildu beharko dira:

1. Erditzearen partea, medikuak, emaginak edo osasun-laguntzaile teknikoak sinatuta; edo, parte hori izan ezean, bataio-agiria edo kasuan kasuko erlijioan antzekoa dena.

2. Gurasoen ezkontzari buruzko ziurtagiria, eta, hori ezinezkoa bada, Elizako agiria.

3. En su caso, certificación o parte oficial de la inscripción de nulidad, disolución o separación legal del matrimonio, aun la provisional, o de la muerte o declaración de ausencia o fallecimiento del marido.

Esto se entiende sin perjuicio de las diligencias para mejor proveer, como la unión al expediente del certificado de empadronamiento, la práctica o ampliación de prueba testifical u otras.

Artículo 316

Comprobada la existencia o identidad del no inscrito y realizadas las diligencias oportunas, se ordenará practicar la inscripción con cuantas circunstancias hayan quedado acreditadas.

Caso de incompetencia, se remitirán las actuaciones, sin resolver, al órgano correspondiente.

CAPÍTULO III

De la reconstitución de inscripciones destruidas

SECCIÓN I

De las medidas para caso de destrucción o deterioro

Artículo 317

El Encargado, en caso de siniestro, hará cuanto esté a su alcance para salvar los asientos y documentos, y a este efecto podrá requerir la ayuda de la autoridad gubernativa. Dará cuenta urgentemente de la destrucción o deterioro

3. Hala denean, ezkontzaren deuseztasun, desegite edo lege-banantzeari buruzko inskripzioaren ziurtagiria edo parte ofiziala, hori behin-behinekoa bada ere, edo senarraren heriotza, absentzia- nahiz heriotza-adierazpena.

Hobeto erabakitzeko eginbideei kalterik egin gabe, hori ulertzen da errol-datze-ziurtagiria espedientera elkartzea bezala, lekuko bidezko froga edo bestelakoak aurkeztu zein zabaltzea bezala.

316. artikulua

Inskribatu gabe dagoenaren izatea edo nortasuna egiaztatu eta eginbide egokiak burutu ondoren, aginduko da, egiaztatutako inguruabarrekin batera, inskripzioa egitea.

Eskumen ezaren kasuan, jarduna, ebatzi gabe, organo eskudunari bidaliko zaio.

III. KAPITULUA

Suntsitutako inskripzioak berreratzea

I. ATALA

Suntsipen- edo narriadura-kasuetarako neurriak

317. artikulua

Arduradunak, ezbeharraren kasuan, bere esku dagoen guztia egingo du idazkunak eta agiriak salbatzeko; ondore horretarako, gobernu-agintaritzaren laguntza eska dezake. Suntsipen edo narriadurari buruzko kontu-arra-

ro al Presidente del Tribunal Superior de Justicia.

Si resultan afectadas inscripciones de más de un folio registral, dará cuenta también a la Dirección General, y el Presidente del Tribunal Superior de Justicia, o el Magistrado en quien delegue, girará inmediatamente una visita extraordinaria de inspección, para la que podrá también delegar, tratándose de Registros en los que actúe el juez de Paz, en el de Primera Instancia correspondiente. Siempre que resultare dudosa la culpabilidad del Encargado, será inmediatamente sustituido en las diligencias de salvamento y reconstitución.

Artículo 318

